

# susa | literaturaren zubitegia | literatur emailuak | armiarma | klasikoak | aldizkarien gordailua | basquepoetry | euskarari ekarriak



## kritiken hemeroteka

6.691 kritika

- [Honi buruz](#)
- [Bilaketa](#)
- [Hasiera](#)

## Azken kritikak

« [Absurdoaren antzerki soziala | Heterodoxo baten ekaitz globala](#) »

Elur bustia / [Pello Lizarralde](#) / Erein, 2016

Etengabeko bidaian Javier Rojo / *El Correo*, 2016-12-17

Aurten narratibaren alorrean argitaratu diren liburuen artean nire ustez Pello Lizarralderen nobela hau nabarmentzen da. Idazleak ohi duen bezala, lau edo bost urtean behin liburu bat argitaratzen du, eta aurten, "Elur bustia" izenburukoaren txanda izan da. Lizarraldek oso ezaugarri markatuak erakusten ditu bere idazlan guztietan eta halaxe agertzen dira hemen ere. Lehenengo eta behin, iraganik eta etorkizunik gabeko pertsonaia da protagonista, Ramiro. Ez dakigu ia ezer haren iraganari buruz eta egiten dituen aurreikuspenak (haren asmoak-eta) ezkutatu egiten zaizkigu, ez baikara pertsonaiaren jokaeraren lekuko baizik. Egiten duena esaten zaigu, ez pentsatzen duena ezta egiten duenaren atzean dauden asmoak ere. Bestalde, sentazioen mundu batean murgilduta aurkitzen da, sentazioek osatzen baitute pertsonaiak inguruarekin duen harremanaren gunea. Pertsonaiak interaktuatzen dutenean, hitzekin baino gehiago keinuekin-eta egiten dute, beraien artean ez baita ia hitzik trukutzen, komunikazioa ezinezkoa balitz bezala. Eta etengabeko ihesaldian ari direla ematen du (kasu honetan, Hegoalde ia mitiko baterako bidaian, etxera bueltatzeko, Ulises galdu baten antzera). Honi gaineratu behar zaio Lizarralde maisua dela idazkeran ere, momentu bakoitzean hitz zehatzena hautatzen baitaki. Osagai hauekin aurkeztu zaigu bizitzaren esentzia, inondik inora ez doan bidaia moduan.